

Zuzenketarako koadernoia

2
0
1
0
/
1
1

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

IRAKURTZEKO GAITASUNA

Izen-deiturak:

Ikastetxea:

Herria:

Data:

Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat
- B 200.000, gutxi gorabehera
- C Milioi bat
- D Zenbait milioi

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A Bartzelonak bezainbat
- B 200.000, gutxi gorabehera
- C Milioi bat
- D Zenbait milioi

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Iruñean, zer da ospe gehien duena?

.....




Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

MOMIA BAT

Grigor gelan sartu zenean, haren bihotzak jauzi egin zuen. Momia bat, alajaina! Burutik oinetaraino bendaz bilduriko momia bat ohean etzanik.

- Hauxe duzu gela -esan zion erizainak-. Zure lagunak Jazinto izena du. Apaiza da. Kanpai bat koipez igurzten ari zela, kanpandorretik behera erori zen – eta momiari hitz egin zion hurrena-. Lagun berri bat ekarri diot, don Jazinto!
- Edefki, edefki! Nofaitekin hif egingo dut beinfat –esan zuen benda artetik, ahots lodi batek.



- Berorrek bai, baina honek ez. Mutua da –argitu zion erizainak.
- Edefki gaude! Ni elbafi eta hofi mutu.

Grigori beldurra ematen zion momia hark bere hizketa arraroarekin. “Hori aldamenen dudala egin behar ote dut lo? Ez dut begirik itxiko gau osoan. Ilunpean hor egongo dela pentsatze hutsak oilo-azala jartzen dit”.

Bazkaldu ondoren, mutikoa berehala irten zen gelatik, erlea alboan zuela eta koaderno eskuan. Gela hartan ezinegona sortzen zitzaion.

Pasabidean zegoela, 113. gelako atea ireki zen; nor irtengo, eta arestiko neskatila txirikordaduna. Aurrez aurre ikusi zion aurpegia; eta begirada hura, batez ere begirada hura, aurpegi osoa hartzen zion begirada leuna.


Neskatilak ere ikusi zuen Grigor, eta hurbildu egin zitzaion. Mutikoari bihotza urtu zitzaion ahoraino, eta malbabisko zaporea izan zuen berriro mingainean.

- Kaixo! Ainhoa naiz. Eta zu?

“Grigor”, idatzi zuen bizkor mutikoak bere koadernoan, “orain mutu nago, sendatu arte”.

Bakoitzak bere berri eman zion besteari; Grigorek, idatziz, noski. Ainhoak bere aldetik kontatu zionez, koskor bat atera zitzaion bizkarrean, eta zer ote zen aztertzen ari omen ziren; gelan bakarrik zegoen eta zeharo aspertzen zen.

Pasabideetan zehar ibili ziren, eta Grigorek sakelan gordeta zeraman erlea erakutsi zion Ainhoari. Berehala egin zen Ainhoa ere erlearen adiskide.



Halako batean, Grigorek haxe idatzi zion ainhoari: “momia baten aldamenean jarri naute gelan. Beldurra ematen dit han lo egiteak. Ez dakit zer egin”.

- Ni neu ere ez nago oso gustura –esan zuen Ainhoak- gela handi hartan, bakar-bakarrik. Beldur pittin bat ere ematen dit, ez pentsa.

Denboraldi bat ospitalean
Juan Kruz Igerabide

1. Non gertatzen da istorioa?

- A. Museoan
- B. Kalean
- C. Ospitalean
- D. Elizan

2. Non zegoen momia?

- A. Egiptoko piramidean
- B. Museoan, sarkofago batean
- C. Ospitaleko kirofanoan
- D. Gelan, aldameneko ohean

3. Azaldu zer den momia bat.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Momia baten ezaugarriak aipatzen dituen erantzuna, ondoko ezaugarriak aipatuz (gutxi gorabehera bada ere): <ul style="list-style-type: none">• Hildako baten gorpua, denbora asko pasa ondoren usteldu ez dena.• Hildako baten gorpua da, bendaz bilduta.• Gorpu bat bendaz bilduta... Pertsona bat bendaz bilduta...• ...

4. Zergatik hitz egiten du horrela don Jazinto apaizak?

- A. Erdi lotan dagoelako
- B. Mina duelako
- C. Hortzik ez duelako
- D. Xarabea hartu duelako

5. Zer gertatu zitzaien momiari?

- A. Aspaldian hilda zegoela
- B. Auto istripu handia izan zuela
- C. Momiaz mozarrotuta zegoela
- D. Kanpandorretik behera erori zela

6. Zergatik esan du don Jazintok “Edefki gaude! Ni elbafi eta hori mutu”? Zer esan nahi du?

- A. Oso gustura daudela biak
- B. Ezingo direla elkarrekin paseatu
- C. Ikusi eta berehala lagun egin direla
- D. Biak oso gaizki daudela

7. Grigori gustatzen zitzaion ondoko oheko laguna ala ez? Arrazoituz zure erantzuna.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Ez zaio gustatzen, beldurra ematen dio, momia bat delako (edo antzeko zerbait).

8. Zergatik atera zen berehala Grigor gelatik?

- A. Momiak beldurra ematen ziolako.
- B. Erizainak agindu ziolako.
- C. Neskabila ikusi nahi zuelako.
- D. Oso gosetuta zegoelako.

9. Nolakoa da Ainhoa?

- A. Txirikordaduna eta begi txikikoa
- B. Ilegorria eta begirada leunekoa
- C. Hankaluzea eta tuntun samarra
- D. Txirikordaduna eta begirada leunekoa

10. Grigorek Ainhoa ikusi zuenean, zer gustatu zitzaien gehien?

- A. Ileko txirikordak
- B. Neskaren gorpuzkera
- C. Begirada leuna
- D. Bere aurpegi osoa

11. Zergatik izan zuen Grigorek malbabisko zaporea mingainean?

- A. Botikak hartu zituelako.
- B. Bazkaldu berria zegoelako.
- C. Ainhoak goxokia eman ziolako.
- D. Neska gustatzen zitzaiolako.

12. Nola sentitzen dira Ainhoa eta Grigor? Zergatik?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa. Ez da aipatzen beldurrez sentitzen direlarik.
1	1	Ainhoa eta Grigor nola sentitzen diren aipatzen du (beldurrez), baina ez beldur horren zergatia. Edota, zergatiak bakarrik ematen ditu.
2	2	Ainhoa eta Grigor nola sentitzen diren aipatzen du (beldurrez) eta baita beldur horren zergatia ere (momiarengatik, Ainhoa gelan bakarrik dagoelako, bakarrik egoteagatik).
Oharra: ontzat emanen da adiskidetasunaren ikuspegia, hau da, puntu bat emango da pertsonaiak elkarrekin gustura edo pozik daudela adieraziz gero, eta beste puntu bat zergatia adieraziz gero (lagun onak egin direlako, maitemindu direlako...).		

13. Nola komunikatzen da Grigor? Azaldu zergatik.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Nola komunikatzen den aipatzen du (idatziz, koaderno batean idatziz) eta baita horren arrazoia ere (mutu dagoelako, ezin duelako hitz egin...).

14. Zenbatu gertaerak 1etik 5era irakurketan gertatu diren ordenaren arabera.

- 4 Erlea eta Ainhoa lagun egin dira.
- 5 Grigorek idatzi du gelan lo egiteak beldurra ematen diola.
- 2 Bazkaldu eta berehala atera da gelatik.
- 3 Ainhoa hurbildu egin zaio.
- 1 Grigor gelan sartu da eta momia ikusi du.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Bi gertaera edo gutxiago zenbatu ditu ongi.
1	1	Hiru edo lau gertaera zenbatu ditu ongi.
2	2	Gertaera guztiak ongi zenbaturik (4 – 5 – 2 – 3 – 1).

Antzinako Egiptoko zibilizazioa

Egipto eta Nilo

Egiptoarren bizitza Nilo ibaiaren mende zegoen, biztanleak ibai bazterretako lur sail estu eta emankorretan bizi baitziren. Egipto herrialde lehorra da; izan ere, Nilo gabe basamortua izango litzateke. Urtero iraila iristen zenean, Nilok gainezka egiten zuen uholdeak sortuz bazterretako lurretan. Urak jaisten zirenean, lokatz geruza bat gelditzen zen. Geruza hori hain emankorra zenez, nekazariak bi edo hiru uzta izaten zituzten urtean.

Komunikatzeko bide nagusia ere bazen Nilo ibaia, elkarrengandik ehunka kilometrora zeuden hiriak lotzen baitzituen.




Faraoiak

Erregea, **faraioia**, ez zen soilik Egiptoko gobernatzailea; jainkotzat ere hartzen zuten.

Faraoiaren botereak ez zeukan mugarik. Erresuma osoa zen berea. Berak erabakitzen zuen zer zegoen ongi eta zer gaizki, bere hitza lege zen.


Piramideak

Piramideak, Aintzinako Egiptoko erregeen hilobiak dira. Haietako handiena Keopsena da. Piramide honek ehun metro inguruko luzera du eta harri blokez osatuta dago. Harriak itsasontziz eramaten zituzten, eta eraikitzeko gunean bertan zatitzen zituzten bloketan, harri bakoitza zehatz-mehatz neurtzen eta ebakitzen zen, zegokion lekuan ondo geratzeko.




Bizimodua

Egiptoar gehienak nekazariak ziren. Garia eta garagarra lantzen zituzten nagusiki.



Uzta biltzeko garaian, den-denek, gizonezkoek, emakumezkoek eta apaizek laguntzen zuten egin beharreko lanetan. Umee animaliak zaintzen zituzten, behiak, ardiak, ahuntzak...

Artisau egiptoarrak oso trebeak ziren. Egurrezko irudiak egiten zituzten; egurra lantzeko tresna gehienak oso gutxi aldatu dira orduz geroztik. Beste artisau batzuek buztinaz forma eta tamaina askotako ontziak egiten zituzten eskuz. Zapatarien lanbidea erraza zen, jendeak erabiltzen zuen oinetako bakarra larruz edo papiroz egindako sandalia baitzen. Dena dela, gehienetan, hanka-hutsik, oinutsik, ibili ohi ziren.



Egiptoarrek urre asko zeukaten. Urrezko bitxiak egiteaz gain, objektuak urreztatzen zituzten, hau da, gainetik urrezko geruza jartzen zuten. Faraaien estatuak eta sarkofagoak, aldiz, urre trinkoz eginda zeuden.

Eskultoreek brontzezko, egurrezko eta abarrezko irudiak egiten zituzten baina, batez ere, harrizkoak. Harginek harria lantzeko ez zuten burdinazko tresnarik, haien tresnak ez ziren oso aproposak; hala ere, harrizko estatua ikaragarri handiak egin zituzten abilezia handiz.

*Ezagutu... EGIPTOARRAK.
TTARTTALO (Egokitua)*

15. Zergatik zuen Nilo ibaiak garrantzi handia egiptoarren bizimoduan?

Idatz itzazu bi arrazoi.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Arrazoi bat ematen du, ontzat ematen direnetatik.
2	2	Bi arrazoi ematen ditu, ondokoetatik: <ul style="list-style-type: none"> • Komunikatzeko bide nagusia zen. • Egiptoarrek Nilo ibaiari esker lur emankorrak zituzten, eta urtean 2 edo 3 uzta izaten zituzten. Nilo ibaiari esker Egipto ez da basamortu.... • ...

16. Aukeratu egia den esaldi bakarra.

- A. Egiptoko jabeak eskribauak eta apaizak ziren.
- B. Antzinako Egipton faraoiak gobernatzen zuen.
- C. Faraoia erregea zen baina ez zuen agintzen.
- D. Faraoiaren boterea ez zen oso handia.

17. Zer egiten zuten piramideetako harriekin?

- A. Harrobietan moztu, bloke txikiak egin eta itsasontziz eraman.
- B. Basamortuko karabanek garraiatzen zituzten piramideetaraino.
- C. Piramidearen ondoan zatitzen zituzten bere tokian jartzeko.
- D. Itsasontziak egiteko erabiltzen zituzten.

18. Zertarako eraiki ziren piramideak?

- A. Faraoien gorpuak han gordetzeko.
- B. Egiptoarren altxorak ezkutatzeko.
- C. Harrizko eskulturak egiteko.
- D. Piramideak faraoien etxebizitzak ziren.

19. Zer dakigu Egiptoko zapatarien lanbideaz?

- A. Zapatariak oso pobreak zirela denak oinutsik ibiltzen zirelako.
- B. Oso lanbide zaila zela larrua eta papiroa landu behar zituztelako.
- C. Ez zegoela zapataririk, jendea oinutsik ibiltzen zelako.
- D. Lanbide hori ez zela zaila baina jendea askotan oinutsik ibiltzen zela.

20. Noiz ereiten zituzten haziak?

- A. Uholdeak etorri baino lehenago.
- B. Nilo Ibaiak gainezka egiten zuenean.
- C. Lurra erabat lehor zegoenean.
- D. Uholdetako urak jaitsi eta gero.

21. Idatz itzazu Keops piramideari buruzko hiru datu.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Hiru datu idatzi ditu, ondokoetatik: <ul style="list-style-type: none">• Piramideak antzinako Egiptoko erregeen hilobiak dira.• Keopsena handiena da.• Ehun metro inguruko luzera du• Harri blokez osatuta dago• Harriak itsasontziz eramaten zituzten• Harriak eraikitzeko gunean bertan zatitzen zituzten bloketan,• Harri bakoitza zehatz-mehatz neurtzen eta ebakitzen zen• ...

22. Zergatik zuen meritu handia harginek harria lantzeko egiten zuten lanak?

.....
.....
.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Ondokoen artean, edozein: <ul style="list-style-type: none">• Burdinazko tresnarik edo tresna aproposik ez zutelako.• Eskultura handiak egiten zituztelako.• ...

Hamalaugarren zortzimilakoa lortu du Edurne Pasaban mendizale tolosarrak

Berria.info, 2010-05-17

Gaur, hemen 7:30ak zirela iritsi da Himalaiako Shisha Pangma mendira, eta martxa onean doaz behera. Aurreneko zortzimilakoa 2001eko maiatzean igo zuen: Everest.



Edurne Pasabanek (Tolosa, 1973) munduko hamalau zortzimilakoak baditu dagoeneko. Gaur lortu du hamalaugarrena:

Shisha Pangma (8.027 metro). Besteak beste, Alex Txikon eta Asier Izagirre euskal mendizale eta *Al Filo de lo Imposible* Espainiako telebista saioko taldekideekin. Ondo daudela adierazi dute.

Mendizale tolosarrak guztiei eskerrak eman dizkie, baita bidean geratu diren denei ere.

Badira emakume gehiago munduko hamalau mendirik handienak lortu nahirik. Emakume horien artean, ospetsuena, Hego Koreako Oh Eun-Sun da. Apirilaren 27an Annapurnako gailurrera igo zen, eta munduko hamalau mendirik handienak igotzen lehen emakumezkoa zela zabaldu zen, baina zalantza handiak daude, eta badira Oh Eun-Sun mendizaleari zortzimilako bat falta zaiola adierazten dutenak.

Beraz, erabat argitu gabe dago nor den lehen emakumezkoa munduko hamalau mendirik handienak igotzen.

[Egokitua]

23. Zenbat 8.000 metroko mendi igo ditu Edurne Pasabanek?

- A. Hamasei
- B. Zortzi mila
- C. Hamalau
- D. Ez dakigu

24. Edurne Pasaban, noiz igo da hamalaugarren zortzimilakora? Urtea, hilabetea eta eguna esan behar duzu.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	2010eko maiatzaren 17an

25. Testuaren arabera, nor da lehen emakumezkoa munduko hamalau mendirik handienak igotzen?

- A. Testuak ez du horretaz ezer aipatzen.
- B. Edurne Pasaban, argi eta garbi.
- C. Oraindik ez ditu inork lortu.
- D. Ez dago oso garbi.

26. Zure ustez, nolako testua da irakurri duzuna?

- A. Narrazio testua
- B. Albiste edo berri bat
- C. Instrukzio testua
- D. Elkarrizketa

27. Non aurki dezakegu testu hau?

- A. Ipuin bilduma batean
- B. Egunkari batean

- C. Entziklopedia batean
- D. Matematikako liburu batean

28. Zure ustez, zergatik izan daiteke garrantzitsua testuak kontatzen duena?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	<p>Ondoko zergatien artean, edozein:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oso zaila da zortzimilakoak igotzea, 14 zortzimilakoak igotzeak meritu handia du... • Emakumezkoak hamalau zortzimilakoak lortzen ari dira. • Garrantzitsua da aurreneko edo aurrenetariko emakumezkoa izatea hamalau zortzimilakoak igotzen.. • Ez dakigu ziur nor den lehen emakumezkoa, bada jakin-mina... • ...